
PRENTSAURREKOA

EAEKO FINANTZAKETA ETA GASTU PUBLIKOA
KULTURAN ETATISTIKAREN AURKEZPENA

2011ko uztailaren 19a

Eusko Jaurlaritzaren Bilboko Egoitzaren Areto Nagusia (Kale Nagusia, 85)

AZTERKETAREN AURKEZPEN OROKORRA

Kulturaren Euskal Behatokiaren xedearen testuinguruan, Kulturaren egindako gastu publikoa ezagutzeko ezinbesteko tresna da administrazioek euren politikak bideratzeko, sektoreek euren estrategiak zuzentzen lagunduko dizkien informazioa izateko, eta herritarrek fondo publikoen helmuga zein den jakiteko.

Borondate politikoak aurrekontuen bidez adierazten dira, neurri handi batean: administrazio baten aurrekontu orokorraren esparruan, kultura-politikari zer pisu aitortzen zaion, eta kulturarako aurrekontu hori nola banatzen den adierazle nagusiak dira. Zentzu horretan, posible da administrazioaren logika funtzionala aztertzea (zein oreka mantentzen den administrazioaren beraren hornikuntza propioaren eta sektore pribatuari eta hitzartutako sektoreari emandako laguntzaren artean), eta zein lehentasun ezartzen den kulturaren azpi-sektoreei laguntzak emateko orduan. Hori guztia, kontuan hartuta krisi-testuinguruan gaudela, egoera horrek efizientzia gorena eskatzen duela, eta kulturaren egindako gastu publikoaren garrantzia defendatzeko argudio sendoak behar direla. Eta, argudio horiek oinarritzeko, ahalik eta informazio objektibo handiena behar da.

Halatan, ***EAEko Finantzaketa eta gastu publikoa kulturaren*** estatistikaren helburua da EAEko Erakunde Publiko nagusiek kulturaren egiten duten ekarpen ekonomikoaren eta inbertsioaren ikuspegi osoa eskaintzea. Informazio asko dakar, eta informazio horretatik datu garrantzitsuenak nabarmendu dira; gainera, Erakunde Publikoetako kultura-enpleguari buruzko informazioa ere jaso da. Lehen edizio honetan bildutako datuak 2008. urtekoak dira.

Azterlanaren balio eta ekarpen nagusia honako hau da: lehen aldiz, kulturaren egiten den gastu publiko kontsolidatuaren ikuspegi orokorra eta araztua dakarrela. Ikerketa horren ondorioz, badakigu 2008an 510,2 milioi euroko gastua egin zela kulturaren, hau da, biztanleko 234,8 euroko ratioa.

Alabaina, aztertuko diren eragileen konpromisoa eskatzen du edozein ikerketa estatistikok; emaitza fidagarri eta adierazgarriak eskuratzeko ezinbesteko baldintza da. Kulturaren Euskal Behatokiak arreta berezia egin du EAEko Erakunde Publikoek operazioaren diseinuan ere parte har dezaten, lehen edizioa izanik funtsezkoa baita hori horrela izatea. Hartara, ikerlanean aztertutako erakundeen % 100en parte-

hartzea lortu da; erantzun bikaina da hori, eskatutako informazioaren konplexutasuna eta xehetasuna kontuan hartuta. Guztira, 192 Udalek, Erakunde Autonomok eta Sozietate Publikok hartu dute parte, Eusko Jaurlaritzaz eta Foru Aldundiez gain.

Ikerketaren beste balio handi bat zera da: segida egonkor baten hasiera dela, eta aurrerantzean, bilakaerak aztertu eta joerak atzemateko aukera emango duela. Izaera estatistikoaren ondorioz, aurkeztutako datuen "argazki finkoa" eskaintzen du, baina azterketaren muga nagusia den horrek etorkizuneko azterketarako abiapuntua izateko balioko du. Beraz, lehenengo erreferentzia daukagu, eta bertatik abiatuta, datuen bilakaeran nahiz interpretazioan sakontzeko aukera emango du.

Aztertutako kontzeptuak

Gastu publikoaren kultura-helburua eta haien izaera ekonomikoa ezagutzera zuzendu dira azterketaren kontzeptu nagusiak.

Kultura-helburuari dagokionez, honako esparru hauen arabera sailkapena egin da: ondarea eta arkeologia; liburutegiak; artxiboak; museoak; antzerkia eta dantza; musika; ikusizko arteak; zinema eta ikus-entzunezkoak; literatura eta edizioa; kultura-ekintza; bertsolaritza; jaiak eta herri-kultura. Gainera, zuzendaritzak eta zerbitzu orokorrek eskatzen duten zeharkako gastua ere jaso da, eta, aipaturiko esparruen osagarri bezala, komunikabideetan egindako gastua bildu da.

Gastuaren izaera ekonomikoa deskribatzeko, gastu publikoaren sailkapen ekonomikoa egin da, hiru atal handitan banatuta: gastu arruntak (I-IV atalburuak); kapital-gastuak (VI. eta VII. atalburuak); eta finantza-aktiboak eta -pasiboak (VIII. eta XIX. atalburuak).

Azkenik, zehaztu behar da azterketa ez dela mugatu Kultura Sailak edo Departamenduak aztertzerantz; aitzitik, erakunde parte-hartzaile bakoitzak kulturaren egindako gastu osoaren informazioa bildu da, beste arlo batzuek kudeatutako aurrekontu-sailak ere barnean hartuta.

EMAITZA NAGUSIEN LABURPENA

Ondoren, *EAEko Finantzaketa eta gastu publikoa kulturaren Estatistikaren* emaitza aipagarrien laburpena aurkezten da.

- 2008an EAEko Administrazio Publikoek kulturaren egindako gastu kontsolidatua 510.155.323 eurokoa izan zen, hau da, 234,8 euro biztanle bakoitzeko.
- Udalek 300 miloi euro inguru bideratu zituzten kulturara, euren aurrekontu osoaren % 9,3. Eusko Jaurlaritzak 57,4 milioi euro bideratu zituen kulturara, aurrekontu osoaren % 0,6. Horrez gain, Foru Aldundiek, euren aldetik, 104,6 milioi bideratu zituzten kulturara, aurrekontu osoen % 3,6.
- Bi kultura-esparru nabarmentzen dira, argi eta garbi: musikak eta museoek, biek batera, EAEko kultura-gastu kontsolidatuaren hiru eurotik bat baino gehixeago hartu zuten.
- Bestalde, 180 milioi euro komunikabideetarako bideratu ziren. Kopuru horretan sartuta dago EITB taldearen aurrekontua.
- Eusko Jaurlaritzak eginkizun finantzatzailea dauka, nabarmen: 2008an, 43,2 milioiko transferentziak egin zituen, hau da, kultura-aurrekontuaren hiru laurden. Foru Aldundiek ere izaera finantzatzaile nabarmena dute: 52,6 milioi euro bideratu zituzten transferentzia arruntetara eta kapital-transferentzietara (kulturaren erabilitako bi eurotik bat).
- Udalek izaera burutzailea eta finantzatzailea lotzen dute; bigarrenari dagokionez, Erakunde Autonomo eta Sozietate Publikoen gastu arruntak finantzatzen dituzte, nagusiki.
- Erakunde Autonomoek eta Sozietate Publikoek hamar eurotik bederatzi, langile-gastuetan eta gastu arruntetan erabili zituzten.
- 2.710 enplegu publiko propio, zuzenean kulturari lotuta.

IKUSPEGI BATERATUA: KULTURAN EGINDAKO GASTU PUBLIKO KONTOLIDATUA

Administrazioen, edo administrazioen eta Erakunde Autonomo eta Sozietate Publikoen arteko transferentzia ekonomikoen ondoriozko kontabilitate bikoitza neutralizatzeko garbiketa-prozesua egin ondoren, kulturarako gastu publiko kontsolidatua kalkulatu da. Halatan, lehen aldiz, EAEko Administrazioek kulturara bideratutako gastuaren ikuspegi orokor eta araztua lortu da.

2008an EAEko Administrazio Publikoek kulturaren egindako gastu kontsolidatua 510.155.323 eurokoa izan zen, hau da, 234,8 euro biztanle bakoitzeko.

ZENBATEKO NAGUSIAK, ADMINISTRAZIO-MAILAREN ARABERA

Udalek 300 milioi euro inguru bideratu zituzten kulturara, euren aurrekontu osoaren % 9,3.

Eusko Jaurlaritzak 57,4 milioi euro bideratu zituen kulturara, aurrekontu osoaren % 0,6. Horrez gain, Foru Aldundiek, euren aldetik, 104,6 milioi bideratu zituzten kulturara, aurrekontu osoen % 3,6.

1. figura. Guztizko aurrekontuei dagokienez, kulturaren egindako gastua, administrazio-mailaren arabera (euroak eta %-ak). 2008

Entitate mota	Kulturaren egindako gastua	Guztizko aurrekontua Entitate bakoitzeko (€)	Kultura-aurrekontua guztizkoaren barruan (%)
Eusko Jaurlaritza	57.431.792	9.317.300.321	0,6
Foru Aldundiak	104.878.140	2.911.978.588	3,6
Udalak	301.425.557	3.245.391.087	9,3


Kultura-ahaleginaren analisiak, alegia, —kulturaren egindako gastuaren garrantzi erlatiboa administrazio publikoen guztizko aurrekontua kontuan hartuz—, bi gai nabarmentzen ditu: alde batetik, kulturarekin zerikusirik ez duten eremuetako betebeharrak, bereziki udalerriaz gaindiko erakundeetan, kulturarako baliabideak mugatzen dituztela, eta bestetik, udalerrien ahalegin handia. Herritarrengandik hurbilen dauden erakunde publikoak diren neurrian, eta behar bada, legez agindutakoak baino kultura-zerbitzu gehiago eskaintzeko adierazten duten borondateak, eragina izan dezake ahalegin handia egiteko gogoan.

KULTURAN EGINDAKO GASTU KONTSOLIDATUAREN HELMUGA

Bi kultura-esparru nabarmentzen dira, argi eta garbi: musikak eta museoek, biek batera, EAEko kultura-gastuaren hiru eurotik bat baino gehixeago hartu zuten. Musikak 95,8 milioi euro hartu zituen, EAEko kultura-gastuaren % 18,8 (44 euro biztanleko). Museoetako gastua 91,4 milioi eurokoa izan zen guztira, hau da, kultura-gastuaren % 17,9 (42 euro biztanleko).


Maila apalagoan bada ere, kultura-ekintzako gastua nabarmentzen da; kontzeptu horren barruan honako hauen bitartez sustatutako programak biltzen dira: ekipamendu komunitarioak eta soziokulturalak, balio anitzeko kultura-ekipamenduak eta -zerbitzuak, amateurismoa eta kultura-partaidetza. Horrelako jardueren multzora 69,7 milioi euro bideratu ziren, EAEn kulturen egindako gastuaren % 3,7 (32 euro biztanleko).

2. figura. EAEko kulturen egindako gastu kontsolidatua, kultura-esparruaren arabera. 2008



Beste ikuspegi batean oinarrituz, gastuaren gaineko beste azterketa bat ere jaso daiteke, gastu horrek herritar inbertitzaileari ekarritako ahaleaginean oinarritua, hain zuzen ere. Zalantzarik gabe, biztanle bakoitzeko egindako gastuak, zifra horien benetako irismena testuinguruan kokatzeko eta ulertzeko adierazleetako bat izateaz gain, kulturaren esparru desberdinen emaitzak alderatzea ahalbidetzen du. 2008an EAEko entitate publikoek kulturen egindako gastua biztanle bakoitzeko 234,8 euro izan zela adieraz dezakegu.

3. figura. Kulturaren biztanle bakoitzeko egindako gastu kontsolidatua, kultura-esparruaren arabera (€/biztanle bakoitzeko). 2008




Kulturaren azpisektore gehigarritzat jo dira komunikabideak, eta honenbestez, ez da hartu guztizko kultura-gastu kontsolidatuaren datuen barnean. 180 milioi euro komunikabideetarako bideratu ziren. Kopuru horretan sartuta dago EITB taldearen aurrekontua.

GASTUAREN IZAERA-EKONOMIKOA


Eusko Jaurlaritzaren eginkizuna EAEko bestelako entitate publiko eta pribatuen finantzatzaile nagusi gisakoa da, eta horiek, ondoren, beren eskumen- eta kudeaketa-esparru desberdinetan egiten dute kulturako gastua zuzenean. 2008an, 43,2 milioiko transferentziak egin zituen, hau da, kultura-aurrekontuaren hiru laurden.

4. figura. Eusko Jaurlaritzaren kultura-aurrekontua, kapitulu ekonomikoaren arabera. (euroak eta %-ak). 2008




Foru Aldundiek ere, bestalde, bakoitzari dagokion lurralde historikoko kultura-entitate publiko eta pribatuen finantzazailer nagusi gisako profila dute. 2008an 52,6 milioi euro bideratu zituzten transferentzia arruntetara eta kapital-transferentzietara (kulturan erabilitako bi euroatik bat). Erakunde hauen benetako inbertsioak ere nabarmenak dira, euren kultura-aurrekontuen % 19,3 hartzen baitute.

5. figura. Foru Aldundien kultura-aurrekontua, kapitulu ekonomikoaren arabera. (euroak eta %-ak). 2008




Udalek izaera burutzailer eta finantzazailer lotzen dute; bigarrenari dagokionez, Erakunde Autonomo eta Sozietate Publikoen gastu arruntak finantzatzen dituzte, nagusiki. 48,8 milioi euro bideratu zituzten langileak ordaintzeko (euren aurrekontuen % 16,2), eta 80,3 milioi euro gastu arruntetarako (% 26,6). Benetako inbertsioen tamaina ere azpimarratu behar da, 67,2 milioi euro bideratu baitzituzten horretara (aurrekontuaren % 22,3). Bestalde, 110,5 euro erabili zituzten Erakunde Autonomo eta Sozietate Publikoen gastu arruntak finantzatzeko, euren kultura-gastuaren hiru euroatik bat.

6. figura. Udalen kultura-aurrekontua, kapitulu ekonomikoaren arabera. (euroak eta %-ak). 2008



Erakunde Autonomoek eta Sozietate Publikoek izaera burutzailer argia adierazten dute. Aurrekontuaren zati nagusia, hamar eurotik bederatziz, langile-gastuetan (63,4 milioi euro, hau da, euren gastuaren % 36,0) eta gastu arruntetan (98,0 milioi euro, hau da, % 55,7) erabili zituzten Erakunde horiek.


7. figura. Erakunde Autonomoen eta Sozietate Publikoen kultura-aurrekontua, kapitulu ekonomikoaren arabera. (euroak eta %-ak). 2008



EAEKO KULTURAKO ENPLEGU PUBLIKOA

2008an, EAEko Erakunde Publikoen urteko lanpostuak 2.710 enplegu propioak izan ziren.

8. figura. Kultura-enplegu publiko propioa (I. kapituluarekin loturik), entitate motaren arabera (urteko lanpostuak). 2008



Estatistikaren lehenengo edizio honetan, magnitude horren osagarri, beste kapitulu ekonomiko batzuen bidez (batik bat, II. eta IV. kapituluak) kontratatutako enpleguaren estimazioa egin ahal izan dugu eta 2008. urtean 853,8 enplegu lirateke, urte osoko enplegu gisa kontatuz.